escuelas y no había escuelas porque no había maestros. Había que romper este círculo vicioso. Ante esta situación la Academia juzgó que ella debía dar este paso, supuesto que ella es la Institución pública creada por las cuatro Diputaciones del país para velar por el euskera. Y así lo hizo. El título de euskera se confiere con arreglo a un programa establecido. Abarca tres grados: Máximo, Medio, Infimo. Dentro de la Academia existe una Comisión integrada por miembros que son todos Licenciados en Filosofía y Letras. Y ellos son los que presiden los exámenes. La Academia organiza también cursillos para facilitar el aprendizaje de las materias que se exigen en el examen, pero bien entendido que no es obligatoria la asistencia a los dichos cursillos sino sólo el superar con éxito el examen.

La creación de este título ha constituido un verdadero éxito, dado el elevado número de los que anualmente se presentan a obtenerlo. Ello es un gran motivo de esperanza de cara al futuro.

Quiero felicitar cordialmente y dar las gracias a cuantos en este momento van a recibir dicho título. Y aprovecho la ocasión al mismo tiempo para dar también las gracias a los predecesores de estos nuevos profesores del idioma. A aquellos como el señor Presa, que en esta misma ciudad, en labor callada, abnegada y humilde, durante largos años, sin títulos ni diplomas, pero con amor en el corazón y tesón en el alma, se han consagrado a la enseñanza del idioma vasco.

ODON DE APRAIZ

Gasteiz, 1976-XII-27

Juan San Martin

Gaur omenaldi berezi hau eskaintzen diogun jauna, Odón de Apraiz Buesa, lehen euskaltzain laguntzaileetariko eta 1968tik ohorezko euskaltzain duguna, Gasteizen bertan sortua 1896ko martxoaren 5ean.

Historia zientzietan lizentziatu ondorean doktor tituluz jabetu zen jakintza berean, Salamanca-n eta Madrid-en estudiatu ondorean. Egin zuen tesi gaia "El país vasco durante la revolución francesa" izan zen. Nik dakidanik inon argitaratu gabea. Bai ordea bertako agirien berriak, Gure Herria (1924) aldizkarian argitaratu zituenak.

Hamar urtekin hasi zen euskara ikasten, bere kontura; lehen aldiz Abendañon udaran familiarekin egiten zituen egonaldietan, hola holako metodoak erabiliaz. Eta bere karrerako lehen urtea aprobatu zuenean, hamazazpi urte inguru zituela, udarako oporrak Aramaion euskara ikasten igarotzea izan zuen saritzat. Ondoko zenbait urtetan Aramaionako bidea hartu zuen.

Bere ogibidez Instituto mailan Geografia eta Historiako katedratiko izana da. Eibarren Errepublika garaian, Errepublika ekartzearen eskerrez (1931ko apirilaren 14an Espainian lehen aldiz Eibarren jarri bai zen Errepublika) Instituto bat ireki zen eta Odón bertara joan zen irakasle. Nik orduan ezagutu nuen, mutiko bat nintzala. Hezikuntzan itzal handia izan zuen eta herrian ondo ikusia zen. Gerrarekin bukatu zen Instituto hura, eibartar ausartak ordainak leporatu behar zituzten. Lana eman ziguten etxerako, baina kultura kendu ziguten hauzorako. Geroztik, urte askoren buruan, Odón-en berririk ez nuen izan. La Laguna eta Reus-en izan zen irakasle, eta bere azken urteetan, jubilatu arte, Gasteizen bertan.

Euskaltzaindia sortu berrian, 1920an, Odón de Apraiz, Euskaltzaindiaren ardurapean linguistika legeak ikastera atzerrira bialtzea erabaki zen. Lehen urte horretan, Paris-ko Unibertsitatean egon zen. Urrengo urtean, Schuchardt-ek Uhlenbeck-egana bideratu zuen eta honek, bere aldetik, Jud gomendatu zion eta Zurich-era bidalia izan zen. Ikasle argi eta bizkorra zen nonbait, 1921eko ekainaren 27ko batzar agirian agertzen denez: "Odón de Apraiz gazte azkar onek dasa, Euskaltzaindiaren berekiko nayaren berri baduela. Udaran Ondarroan izango dala, ta anditxek erantzungo duela".

Zurich-tik Turín eta Pramollo (Piamonte) aldera jo zuen Paulo Schenermeier-ekin, jaun hau parte hoietako Atlas Linguistikagintzaren zuzendaria zenez, berakin Linguistika-Geografia praktikak egiteko. Ikaskuntza horiek oso baliozkoak izan zituen, eta, ondorioz, Euskal-Herriko zenbait pun-

dutan inkestaginan jardun zen 1924an. Egia esan, ikasketa horiek zer ikusi handia izan zuten Euskaltzaindiak elkar lanean eratu zuen "Erizkizundi irukoitza"rekin. Ifar Euskal-Herriko 20 tokitan egin zituen euskalki azterketarako inkesta betetze lanak, eta era berean Euskal-Herriko mendebaldean Debarruko 12 tokitan, Euskaltzaindiaren aginduz.

Lan horietako asko EUSKERA aldizkarian argitaratuak daude. Beste batzuk ordea, artxibaturik gordetzen dira. Azken urteotan, gai hontaz lanik gehien egiten ari dena Pedro Yrizar adiskidea dugu eta, berari esker, aztertu dituen paperetatik dakigu Odón-ek herri hauetan egin zituela lanak: Lapurdiko Ainhoa, Sara, Urruña, Donibane Lohizun, Arrangoitze, Uztaritze, Hazparne, Bezkoitze, Urketa eta Bardoze; Baxenabarreko Heleta, Larzabale, Donibane Garazi eta Aldude; eta Debarruko Gatzaga, Eibar, Elgeta, Bergara, Antzuola eta Plazentzian.

1922an, Gernikan, Euskal Ikaskuntzako Hirugarren Batzarretan "Investigación dialectológica del Euskera" zeritzan txosten bat aurkeztu zuen (Ikus, *III Congreso de Estudios Vascos*, liburuaren 95. orrialdea). Baina beste lan asko bezala, hau ere argitaratu gabe gelditu zen. Orain, bere lanen bilduma zehatz bat egitea kostako da. Baina, dena dela, ongi hartuko da Arabako Foru Diputaziokoek laster eskainduko digutena.

Zer penagarria izan den gudarekin gure estudioak izan zuten burubidea eta zer penagarria gizon jakitun hoiek eraman zuten ondorena. Kulturaz heldutasunera iritxiz geroztik etorkizun guziaren hondamendia ikusi beharrez. Oraindik urteak joango zaizkigu gure kulturak izan duen atzerapen handiaz konturatu orduko.

Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*, I, 198 horrialdean aurkituko dugu argitaratu zituen zenbait lanen berri. Ez lan guziak, noski. Argitaratu dituenak aldizkari askotan sakabanatuak daude eta hoietako asko atzerriko aldizkarietan. Hara erabili zituen izenordeak: Olarizu, P. de Araizondo, Argitza eta Olari. Horiez gainera, estranjerian publikatzen zituen lanentzat Ziarpa ere erabili zuen. Kolaboratu zuen aldizkari batzuen izenak, honek dira: Bizkaitarra, Arabarra, Euzkadi; Tierra Vasca zirelakoetan euskarazko lanak argitaratu zituen 1913tik 1936ra bitartean. Gazteleraz eta frantsezez beste

honako hauetan: RIEV, Euskalerriaren alde, Ateneo, Euskal Esnalea, Gure Herria, Yakintza, Mediterraneo, Bol. Real Sociedad Vascongada de los Amigos de País eta beste zenbaiten.

Arabako euskarari buruzko lan asko egin zituen Revista Internacional de Estudios Vascos-en 1920an hasi eta Ateneoko "El idioma en Alava - Toponimia alavesa"tik zehar 1958an Bol. de la Institución "Sancho el Sabio"ren orrialdeetara arte.

Euskaraz idatzi dituenetatik, nik neuk, guti ezagutzen ditut, baina Karmelo Etxegaray-ren omenezko liburuan idatzi zuen "Euskal Olerkiaren berezikai bat" oso lan ederra dela esan nezake.

Lan guzien artean, Arabako euskaraz egin zituen ikerketak izanen ditugu maitagarrienetakoak.

Arabako euskarak, Bizkaikoaren tankerakoa bazen ere, probintziaren ifarraldetik batez ere, bere berezitasunak zituen euskalki bezala. Honegatik, Abadiñoko Untzuetak Otxandioko Iturzaetaren hitzaldiak bizkaieraz ipini zituen. Mediterraneo eta Atlantiko urak bereizten diren lekuan zatitzen dira euskalkiak ere. Olaeta, Otxandio, Ubidea muga direla aintzinako Karistio-Autrigon lurraldeetan behinik-pehin. Zeren, mutur batetik bestera ezin bai daiteke galga ber-bera erabili. Mendebaldera, Aiara partean beste era batekoa zen eta hegoaldera aldatuaz joango zen noski.

Gainera, Arabak, bere nortasuna ere agertu du bertako zenbait idazleren bidez: Landuchio, Barrutia, Gamiz, Ulibarri, eta orainagokoak.

Eta orainagokoen artean gure goresmenik handienak merezi ditu Odón adiskideak. Honelako gizoneri esker, berriz ere zutituko da gure herri gogotsu hau.